

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juliana Olaizola Gurrutxaga

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1928-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Azpeitiko Oñatz auzoko Etxeizar baserrian jaio zen 1928an. Aita Etxeizarkoa eta ama Urrestillakoa zituen; 12 anai-arreba ziren. Eskolan, 11 urtera arte ibili zen Oñatzen bertan. 15 urterekin, Oñazko baserri batean aritu zen neskame lanetan. 19 urterekin, Gerranzuri baserriko semearekin ezkondu eta bertan bizi da. 14 seme-alaba izan zituen. Betidanik baserriko bizimodua egin du.

Zintak

AZP-013

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-07-29
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Leturia, Ane - Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Soroko lanak eta tresnak

- **Erref:** AZP-013/003
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Soroan artoa, garia eta arbia lantzen zituzten. Lehen behiak eta astoak erabiltzen zituzten garraiorako. Belarra lehen gutxi lantzen zen.</p>

2. Etxeko ogia egiteko, egurraren garrantzia

- **Erref:** AZP-013/004
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:07:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Ogia etxean egiten zuten. Labea nolakoa zen eta nola funtzionatzen zuen deskribatzen du. Egurraren arabera, ogia hobeto edo okerrago ateratzen zen. Egurrak suari zer ukitu ematen dion azaltzen du. Ogia astean behin egiten zuten, eta aste osorako balio zuen.</p>

3. Errazionamenduaz gain, janaria lortzeko bideak

- **Erref:** AZP-013/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:07:01. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Gerraostean kaleko ogia jaten zuten: nolakoa zen eta nola lortzen zuten aipatzen du. Errazionamenduko ogia jaten zuten, eta lau bat ogi tokatzen zitzaizkien. Egunero banatzen ziren ogi haiek, baina horrez gain, garia eho eta estraperloan ere ibiltzen ziren ogi gehiago lortzeko. Errazionamendu-liburuxka edukitzen zuten, eta familiaren beharren arabera jasotzen zuten janaria.</p>

4. Errazionamendu garaiko debekuak, zigorrak eta trikimailuak

- **Erref:** AZP-013/006
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Estraperloa zerekin egiten zen azaltzen du. Errotara gauzez joan behar izaten zuten, garia ehotzea debekatuta baitzegoen. Errotariei nola ordaintzen zitzaien aipatzen du. Inoiz ez zieten harrapatu beraiei, baina bai beste batzuei. Baserrietan janaria ez entregatzeagatik kartzelara eramandako jendea bazegoen.

Transkripzioa

- Ta estraperloa zenena itten zan, gauza hoiena danena?
- Dana, dana. Estraperlue? Jateko gauze guztiye dana estraperlue izeten zan. Ez zan libre izeten ez gariye ehotzeik, ez gariye saltzeik eta ez babie ta... Ordun, gaiñea, baserrikuei danak kendu eiten zixkoen ta ematen zituen, herrire banatzen zituen, famili bakoitzeko horrenbesteko bat tokatzen zala ta eztakit zenek ordenatzen zitun haiek. Eta etxeako [...] be gelditzen giñen.
- Esan dezu errota izkutun jun behar izeten zenduela.

- Bai.
- Gaez?
- Gaez.
- Ba hemendik Martittea...
- Hamendik Martitea menditik buelta, ba, orduak eta orduak.
- Orduk.
- Handik buelta, mendi batetik... han goiko mendi hartatik goitik behera... bua... ! Oso, oso.
- Eta behin errota juten ziñetenen ta ehotze zizuenen hainbesteko bat kendu eitten zun.
- Bai, hori ´re bai. Beai kentzen ziyon, irin hari beai kentzen ziyon. Haiek... bere jornala han in ber zebe haiek ´e, eta hari... hantxe laga ber zendun hure ´re ta ez zan izeten pilla haundiye etxea ekartzeako, baiño hantxe, ahal dan bezela, ahal zan bezela.
- Sekula tokau zitzaizuen batenbat zaintzen o, guardia zibilek o?
- Harrapautekoik ez, gurin ez zan tokau iñor, baiño izeten zien, e! Harrapautakuk, guardia zibilek harrapautakuk eta.
- Estuasun earrak ibiliko zittuzuen.
- Bueno... Bai, hara juteko lasai ezin jun, aizu.
- Eta gaiñontzeko gauzak, baba ta hoiek? Nundik... nun eitten zan estraperloa hoina? Babana ta.
- Zeuk ez zenduken saltzeiken, eman ber zendun herrire, ta herriuek jasotzen zebe zea, babak eta artue eta danak. Danak. Eta haiek beak ordenatzen zebe. Ta zuri ez dakit /eztakit/ ze familitakue ta zuri horrenbeste tokatzen zazu ta zuk eman in ber zendun. Ta gaiñea bazien hamen auzuen kartzela emandakuek ez zebelako ematen, herrire eman ez zebelako. Herrire eman ez zebelako kartzelan eondakuk bazien, gure koñae ta beste auzoko bat, entregau ez zebelako. Baserriyen norbeak jateko behar zan gauzie hara entregau ber zendun. Eta ez bazendun entregatzen, ba, kartzela.
- Lehen etxen gutxi ta gaiñea entregau ein behar.
- Bai, bua, bai.

5. Azokara saltzera joaten zirenekoa

- **Erref:** AZP-013/007
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:12:02. **Bukatu:** 00:14:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Lehen azokara joaten ziren etxeko janaria saltzera, eta gerora esnea etxez etxe saltzen hasi ziren. Zenbatean behin joaten ziren azokara saltzera, eta azokako postua izateko zenbat ordaintzen zuten azaltzen du.

6. Etxean arropa nola egiten zuten

- **Erref:** AZP-013/008
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:14:06. **Bukatu:** 00:16:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Lehen arropa askoz gutxiago izaten zuten; normalean kaletik erosten zuten, baina bere amak garai batean hariak egiten zituen, eta gero harekin arropak egiten zituen, bai baitzituen hartarako makinak.

7. Ermandadeen funtzionamendua

- **Erref:** AZP-013/009
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:16:21. **Bukatu:** 00:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Ermandadeek nola funtzionatzen zuten, zertarako balio zuten eta nork osatzen zituzten azaltzen du.

8. Auzolana eta gari-jotzea

- **Erref:** AZP-013/010
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:17:27. **Bukatu:** 00:19:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Lehen auzolana askotan egiten zen: bideak egiteko, garia jotzeko... Gari-jotzeko eguna nolakoa izaten zen azaltzen du. Garia nola jotzen zuten aipatzen du, eta dena aprobetxatzen zutela dio.</p>

9. Arropa garbitzeko egin beharrekoak

- **Erref:** AZP-013/012
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:20:42. **Bukatu:** 00:23:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Etxean ez dute beti izan argia eta ura. Ura oso berandu ekarri zuten, eta ordura arte nondik ekartzen zuten azaltzen du. Iturrian arropa garbitzen zuten, eta arropa nola garraiatzen zuten aipatzen du. Lixiba nola egiten zuten azaltzen du. Arropa zuria aparte garbitzen zuten.

10. Sendatzeko bideak: etxeko botikak eta medikuak

- **Erref:** AZP-013/014
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:25:07. **Bukatu:** 00:26:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Etxean belarrak erabiltzen zituzten botikak egiteko, bai eurentzat, bai eta ganaduarentzat ere. Gaixotuz gero, Azpeitira joaten ziren medikuarengana.</p>

Transkripzioa

- Eta bazenuen ohitturaik, belarrak-eta oain hemen aittau deu ta, botikaik o itteko etxen?
- Botikaik ez, ordun botikaik ez zan ezerrekin ebaltzen. Guk ezerrekin botikaik garai hartan...
- O belarrak zeoze sendatzeko o...
- A, hori bai! Bai, belarrak norbeantzako bai! Hoiiek bai. Pasma belarrak ziela ta berbenak eta gero beste zea asko´re bazien. Neuk asko ez nun hori ebaliz izen, baiña askotan aitu izen zien behintzet, bai.
- Berbenak eta, zertako izaten zien?
- Berbenie izeten da, ba, infekziyuntzako. Pasma belarra´re bai. Ganauei´re bai gaixotzen zani. Pasma belarra bilau eta egosi eta ure eman ganauei´re. Bai, hare asko. Ordun betenaue´re ez zan asko ibiltzen eta pasmo belarra. Behie, umie eiten zunien, ta ordun gaixo antzien zeonin ta ordun, pasmo belarra ganauei´re ematen zitzekon.
- Ta norbea gaixotu ezkeo? Meikuna noa juten ziñeten, Azpeitia?
- Bai, Azpeitire. Bai, urrutiz izeten zan, baiño medikuk´e... Oain hainbete gaixo ez zan izeten ta ederra, bestela ez zan giro izeten hara.

11. Lehengo gaixotasunak eta haien sendabideak

- **Erref:** AZP-013/015
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:26:22. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Ama gaixotu zenean, minbizia zuela esan zioten, eta denbora gutxi geratzen zitzaioala; azkenean 20 urte gehiago bizi izan zen. Lehen zer gaixotasun izaten ziren aipatzen du.</p>

12. Baserritik kalerako bidea egin zutenekoa

- **Erref:** AZP-013/016

- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Oinatzetik kalerako bidea egin zutenekoaz gogoratzen da. Materiala lortzeko eta garraiatzeko, kamioia erabiltzen zuten. Bidea egindakoan, alde handia nabaritu zuten, lehenago astoz joan behar izaten baitzuten herrira.</p>

13. Oinatzeko eskolako gorabeherak

- **Erref:** AZP-013/017
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:30:09. **Bukatu:** 00:32:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Eskolara Oinatzera joan zen, baina etxean lana zegoenean, ezin izaten zuen joan. Neskak eta mutilak batera joaten ziren eskolara. Maistra euskalduna zen, baina erdaraz irakastearren, zigorak jartzen zizkien euskaraz egiten zutenean. Eskolan gehienbat dotrina ikasten zuten, eta euskaraz izaten zen. Eskola goizez eta arratsaldez izaten zen.</p>

14. Elizara derrigor joan behar

- **Erref:** AZP-013/018
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:32:58. **Bukatu:** 00:35:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Oinatzten eliza bazegoen lehen ere, eta igandetan nahitaez joan behar izaten zuten hara, bestela zigorra izaten zuten eta. Lehen apaizak meza latinez eta aldarera begira ematen zuen, jendeari bizkarra emanda. Dotrinan ikasitakoak bete egin behar izaten ziren.

15. Erromeriak Oinatzten eta matxismoa gizartean

- **Erref:** AZP-013/020
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:35:46. **Bukatu:** 00:37:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Oinatzten egiten ziren erromeriak. San Juanetan tabernak jartzen zituzten, eta jende asko inguratzen zen. Egun horietan zer egiten zen azaltzen du. Iluntzerako etxera joan behar izaten zuten. Neskak ez ziren tabernara sartzen, hori lotsagarria baitzen lehen. Erre ere ez zuten egiten emakumeek; gizonek, ordea, dena zuten libre.

16. Lagunekin egiten zituzten planak

- **Erref:** AZP-013/021
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:37:37. **Bukatu:** 00:39:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Lagunekin zer egiten zuten azaltzen du. Funtziora derrigor joan behar izaten zuten emakumeek. Kalera ez ziren jaisten, inguruko auzotara bakarrik. Dena oinez egiten zuten lehen.</p>

17. Eskola bukatu zuenetik ezkondu zen arteko ibilerak

- **Erref:** AZP-013/022
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:39:01. **Bukatu:** 00:40:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Neskameak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Eskola bukatutakoan, etxean ibili zen lanean. 15 urterekin neskame joan zen bi urterako. Eta geroago, josten ikasi zuen Azpeitian. Azpeitira oinez joaten zen, eta egun osoa han ematen zuen, baserrian behar izaten ziren gauzak josten ikasten.</p>

Transkripzioa

- Eta esan dezu eskolan hamaika urte arte ibili ziñela, eta gero lanen hasi ziñen nunbaitten?
- Etxien.
- Etxen?
- Basarriyen, ardiyek zaitu, behiyek zaitu.
- Neskame edo joaten ziñen nunbaitea?
- Gero hamabost urtekin hortxe baillera bertara bi urte pasa nitun han, eta gero bi urte pasau eta gero ba jostea. Ordun ezkontzeako jostea ikixi ber izaten zan eta josten pixkaten ez nun ezer asko ibilli're, ordun lana besteik

ez zan izaten. Noizin pixkaten jostea're juten giñan ta hantxe, beste urtebete o hantxe buelta bat kalea buelta batzuk josteko izenien ta basarriyen gero honea.

- Azpeitia jun ziñen josten ikastea?
- Bai, urtebete baten.
- Zer zeon, akademin bat?
- Bai, hantxe ibiltzen giñan, eta gero hemeretzi urte hogeitaz urte baiño leno ezkondu, ta gero gure bizimodue hamentxe larogei urte artekue.
- Josten ikastea Azpeitia nola juten ziñen, oiñez?
- Bai, goizin jun eta kalin bakaldu ta illuntzien etxea.
- Kalen nun bazkaltzen zenun?
- Ba, koiñeta baten etxea jun ta han bazkaltzen nuan, eta illuntzien etxea.
- Eta ze josten zenduen?
- Danetik, prakak eta alkondarak eta bata eta holako korriente gauzak. Holako tokire jun nintzen e? Toki fiñea ez nintzen jun. Baiño basarriyen gero josten ikixi ber zela, ez nun denbora ezta izen josten ikisteko hamen josten jarduteko, baiño behintzet ikixi ber izaten zan. Basarriko gosie, alkondarak eta prakak eta hoyek ta bata eta etxin ibili ber zan gauzie.

18. 13 ume hazteko nola moldatu ziren

- **Erref:** AZP-013/025
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:47:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Lehen umeak izatea betebeharra zen, eta ez izatea bekatua. Umeek lehen lan handia ematen zuten, eta nola zaintzen zituzten azaltzen du. Hainbeste ume hazteko nola moldatzen ziren aipatzen du.

19. Gerran etxeko gizonek izandako zoria

- **Erref:** AZP-013/026
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:47:24. **Bukatu:** 00:49:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra hasi zenean, 9 urte zituen. Anaiak ihesi joan behar izan zuen, gorriak baitzetozen. Aita nazionalista izan arren, ez zioten ezer egin. Bi anaia gerran hil zitzaizkion.

Transkripzioa

- Gerra denbora... Nola akordatzen dezu, akordatzen zaizu, gerra denbora?
- Buf... Hemen izen zan gerra denborako garai hure, ene... Bai, ni ordun gaztie nintzen, baiña akordatzen naiz e...

- Zenbat urte zeuzkezun gerra hasieran?

- Beatzi urte nitun. Eta nere anaie ba jun zan Beasaiñea, amabirjin egun baten, ihesi, naparrak... Ez, ordun gorriyek zien, eta gorriyek gaixtuek zien, eta bestien baimena... Bestiek gorriyek hemen zeuden bitartien ba eztakit ze ingo ziyobela ta [...]

- Alde ein behar izan zun.

- Alde in behar izen zuen, eta [...]. Nere anaie zan... karlistan aldekie izengo zan, karlistie izengo zan. Eta aitte nazionalistie. Eta gu ondo arreglau giñen. Hare... ordun alde in zuan, eta, gero, hure alde in zunin, ba, ez ziyoben... aitte nazionalistie zan ta aittei ez ziyoben iñungo zeaik ein. Gorriyek hemen geau zinin, ba, aittei ez ziyoben ezer... ezertan ez ziyoben zeatu. Eta gero in zin, etorri zan berriz handik bueltan etorri zien naparrak honea sartu zien, eta, haiek danak sartu zinin, geo gorriyek alde in zeuben, eta aitte´re libra in zan. Semie zauken karlistie o izenekue, ta ordun... Bi anaie´re gerran hil zin, e! nere bi anaie. Ta...

- Nun?

- Bat Otxandianon, ta bestie Lemonan. Lemona hor... Bizkai alde hortan. Hoietan hil zin.

- Hemen e... Akordatzen zea tropak sartu zianen o?

- Ene... Bai. Hor Elosiyaga aldin goitik behera nola sartu zin akordatzen naiz.

20. Karlista etxean ezkutatu zutenekoa

- **Erref:** AZP-013/027
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:49:02. **Bukatu:** 00:50:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Tropak sartu zirenekoa gogoratzen du. Egun hartan karlista bat etorri zen beren etxera, gordetzeko eskatzen. Lasto pila artean ezkutatu zuten, eta harengatik galdezka etorri zirenek ez zuten harrapatu.</p>

Transkripzioa

- Zu nun zenden ordun, etxen?

- Bai.

- Eta etxe ingurua etorri zien?

- Ez, gure etxe ingura ez zan etorri hola, ez. Behin akordatzen naiz ordun amenaza in zauren, ba ordun hure zer zan, karlistie izengo zan bea, karlistie izengo zan itxurie danez. Eta gu ai giñen soruen ai giñen arbiye eiten edo, udazkena zan ta, arbiye iten edo eta gizon bat nola etorri zan eta esan zion aittei: "ezkatau nazu, gorde nazu nunbaiten, sapaian gorde nazu". Ta laga ta jun zan etxea, eta lastua zegon ordun, ta lasto pillen sartu zuen eta gordeta laga zuen, eta etorri zan berriz, soruen hasi zan eta kabaillo batekin bi kabaillokin bi gizon: "hamen gizon bat ikusi al dezue?" ta "ez, nik ez diat iñor ikusi hamen. Eta orduntxe sartu zun beak. Ta zin lasto pillen ipinita han zeuen gizajue, eta ez debe ikusi, ta halaxe pasau zan. Eta gero gabien hartu seme batek, eta hartu ta eraman zuen han [...]

zea, hor Matximenta hamendik pasa zun ta gero Matximentatik (Matxinbentatik) barrun ta beste batek eta holaxe orduko ibillierie.

21. Jendearen arteko liskarrak nola sortu ziren

- **Erref:** AZP-013/028
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:50:14. **Bukatu:** 00:51:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Ganadua ez zuten ezkutatu beharrik izan; baina bailaran bai aritu zirela soldaduak ganadua biltzen. Horrek baserritarren arteko liskarrak eragin, eta denak sakabanatu zituen.

22. Gerran fusilatutakoak

- **Erref:** AZP-013/029
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:51:48. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian fusilatutakorik egon zen. Denen begi bistan fusilatu zituzten, apaizak konfesatu eta gero. Hil eta gero, haien zapatak kendu, eta hiletara joan zenik ere bazegoen. Garai hartan, amorru handia zegoen jendearen artean.

Transkripzioa

-Fusilautako jendeik-eta, izan zan hemen?

-Ba fusilautakuk bai, bazien fusilautakuk´e. Gure gizonak hemen behin baiño gehiotan esan izen zun, bea´re eon zan hure´re, hure nazionalistie zan ta, kartzelan´e eon omen zan, Azpeitiko kartzela baten. Eta beak esaten zuen, bi ein omen zituen atea, esan... batenbat jun omen zan eta apaizek konfesatzea nahi baldin bazeben, ta gero bazekiyen beak hil in ber zebela, eta bi gizon behintzet konfesau zitun. Beakin batea zeuen, apaize´re nere gizonakin batea zeuen kartzelan.

-Apaiza kartzelan zeon?

-Bai

-Zeatik zeon?

-Hure´re jakiñe ba, hure´re politikue zala ta! Kartzela. Eta gero hantxe kartzelan aber apaizik ba al zeon ta baietz ba, ta hala jun omen zan. Ta gero harek esan omen zun: "Bat behintzet seguru-seguru zerure jun dek, bestie´re hor nunbait, baiño gizon jatorrak dituk". Ta in zeven goizaldien, eta gure etxien aurrien, urruti zeuen e, baiño kamiño bix-bixten eman haraxe ta bota, tirotute. Kartzelatik atea ta hantxe. Gure bixten, etxetik bixten, bi gizon han botata. Eta... Urrestildarra zan gizona behintzet. Eta, aitu nuen, haren zapatak jantzi ta bean entierroa jun zala, ta holakuk aitze zin ordun´e. Lehenengo tiruk eman, gero gizonan oiñetakuk hartu ta bean entierroa jun ta. Oaiñ´e badala baiño orduntxe´re bazan...

-Isilago pasauko zien gauzak ordun.

-Ene... Bai baiño ordun elkarrentzat amorru earra zan ba.

23. Gerra eta kartzelak vs gerraostea eta gosea

- **Erref:** AZP-013/030
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:53:23. **Bukatu:** 00:55:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Azpeitiko kartzela non zegoen azaltzen du. Txikizio handirik ez zen izan orduan, baina egoera zaila izan zen. Goserik ez zuen pasa gerraostean. Baserrian beti zuten zer bait prestatzeko, baina ezkutatu egin behar izaten zuten, bestela entregatu egin behar izaten zuten eta.</p>

Transkripzioa

- Esan dezu kartzela. Kartzela nun zan Azpeitin ba?
- Oin kartzela, ba oin betarramistetataneko aurre hortantxe. Betarramista alde hortantxe, e... Ordun kartzeli zan ba, taberni ta daon hortxe.
- Ze taberna?
- Em... Pastorkua o taberna bat?
- Bai.
- Hortxe.
- A, han zan?
- Bai. Hortxe. Hortxe, gero edifiziyue zaneke hortxe [...]. Hortxe zeon kartzelie.
- Txikizio haundik izan zien hemen?
- Ordun txikiu txikiu, hola, txikiu ez zan eiten, hola txikiziyoiken. Ez zeon ordun... Baiña ordun... parin harrapatzen zebena ordun´e... jakiñe. Harrapau iten zan ordun e... Lehen esan dana, batzuk lehenengo ihes in behar izan zebe karlistak, ta ordun aurrin harrapatzen zituenak harrapau ta eman iten zuen, ta gero hurruna bestie berriz, ta hurruna bestiek hartu ta ematen zituben ta. Ordun majiña bat etxe ezerre be gerau zien kontuk, eta etxetiken muebliek eta danak harrapatzen zitubela ta.
- Denbora asko iraun zun?
- Hiru urte gerra harek iraun zun. Bai. Nahiko luzi izen zan bai. Nahiko luzie izen zan.
- Goseik pasa zenuen?
- Basarrin goseik ez zan izeten. Ni ogi zale haundiye izen naiz ta orduntxe fallo haundiyena ogiye, baiño goseik ez baserriyen, beti ite genun zeoze, ta patatie ta babie ta etxeko... Lehen esan detana, etxeako gordetzen jarduten genun, gorde ber etxeako, gorde behar bagenun´e, lur-zulue in eta han zeak barrikak sartu ta han jan...
- Hori zertarako?
- Han sartu ber izen giñuzen babie ta! Jango bagendun gero! Gariye ta! Hoiiek. Bestela etxea jun ta errekonozitzen zebe eta ematen ziun kastigue, aizu! Hamen daukezuelako. Ta geuk indekue izen! Geuk jateko ber! Ta entregau in ber izeten zenun derrior. Ta entregatzen ez bazenun, ba, oso txarra izeten ziñen.

24. Kaletarrek baserritarrei burla

- **Erref:** AZP-013/032
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:55:37. **Bukatu:** 00:56:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Kaletarrek beti egiten zieten burla baserritarrei, janzeragatik, besteak beste.

25. Hika, zuka eta berorikaren erabilera

- **Erref:** AZP-013/034
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:57:19. **Bukatu:** 00:59:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Etxean ahizpekin zuka egiten zuen; anaiei, ordea, gazteei bakarrik hika, zaharragoei zuka. Lagunartean hika egiten zuten, eta seme-alabei ere hika egiten die. Gurasoei zuka egiten zien. Berorika apaizari eta medikuari hitz egiteko erabiltzen zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com